URRIA / 2026

419

behar bidasoa

ELKARRIZKETA

Iker Karrera Peña koreografoarekin hitz egin dugu. 18 urte zituela Madrilera joan zen ikasketak egitera eta bukatu bezain pronto, dantzara bideratu zuen bere jarduna.

ARTISTA BAT NAIZ NI

Ane Gómez Landaren *Baratzak bizirik* erakusketa bukatu berritan, artistarekin elkartu gara Kostako tunelean margotutako horma-irudiaren sormen-prozesua ezagutzeko.

hondarribia

40 URTE

Behar Bidasoa
50 urte aukerak sortzen

hondarribia

419 | 2026ko urria

4 HERRIAN BARRENA

9 ALDERDIEN TXOKOA

10 ELKARRIZKETA
IKER KARRERA PEÑA

14 ERREPORTAJEA
BEHAR BIDASOA

18 EUSKARAZ TXUKUN ETA JATOR

19 ATXAMARTA AZOKA

20 NORK NORI

22 GALDEZKA

24 AISIALDIA

25 ARTISTA BAT NAIZ NI
ANE GÓMEZ LANDA

26 GANBARAKO KUTXA

28 DENBORA PASAK

30 HONDARRIBIA ZENBAKITAN

HONDARRIBIA EUSKARAZ

Argitaratzailea: Hondarribiko Udala, Euskara Zerbitzua. **Aldizkariaren koordinatzailea:** Ander Moron. **Erredakzioa, diseinua eta maketazioa:** Kultur Atelier. **Ale honetan kolaboratzaileak:** Ketxus Ponce, Aireportua, Liburutegia, Berdintasun Departamentua, Arrantzaleen Kofradia eta Bidasoa Bizirik. **Inprimategia:** Antza.
L.G.: SS 122/86. ISSN: 2530–1713

Hondarribiak ez ditu bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.

Laguntzaileak

Hondarribiko Udala

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Gipuzkoako Foru Aldundia

KONPROMISO POLITIKO ETA ETIKOA MEMORIA HISTORIKOAREKIN

Hondarribiko Udalak bat egiten du 1936ko Gerra ekarri zuen estatu kolpea eman zela 90 urte betetzen diren urteurrenarekin. Ia mende oso bat igaro da, gure herrian eta herritarrengan orban sakonak utzi zituen gertaera lazgarri hartatik, eta ondoren beste 39 urtez diktadura bortitz eta errepresibo bat etorri zen.

Hamarkada luzeetan zehar, minak, beldurrak, isiltasunak eta batez ere, ahanzturak bere eragina izan dute gure gizartean, eta aurreko belaunaldiek jasandakoa gogora ekartzen dugunean berpizten da. Gaur, ordea, beldur, min eta isiltasun horrekin hausteko unea heldu dela diogu, duintasuna eta egia argitara eramateko unea.

Hondarribiko Udaletik gure konpromiso politikoa eta etikoa berresten dugu Memoria Historikoarekiko. Memoria ez delako atzera begiratzea soilik; gure gizartearen oinarri demokratikoak sendotzea, iragana presente edukitzea eta gure arbasoek pairaturikoa gizarteratzeko konpromezua ere badelako.

Gure gogoan eta bihotzean ditugu gerran eta osteko diktaduran izua, errepresioa, erbestea, isuna eta arazketa pairatu edota bizitza bera galdu eta kendu zieten hondarribiar guztiak. Haien izenak eta bizipenak gure historiaren eta izaera komunitarioaren parte dira, eta gure betebeharra da haien duintasuna eta oroitza bizirik mantentzea.

Gure agintaldi planaren ardatzetako bat ere izanik, Memoria Historikoa eta giza eskubideen lanketan jarraitu dugu. Aurretik bestelako lanketa garrantzitsu batzuk egin izan baditugu ere oraingo honekin bestelako pausu bat eman dugula esan dezakegu. 1936ko gerran hildako biktima mortalen aitortza.

Gure herriak eta herritarrek aurrera jarraitu ahal izateko aitortza ezinbestekoa da. Bide honetan erakunde eta instituzioen inplikazioa beharrezkoa da, noski, baina horrekin batera, gizarte zibilaren eta norbanakoaren jarrerak aurrera pausu handiak ahalbideratu ditzake. Eta hemen azpimarra jarri nahi nuke, Hondarribiak Memoria historikoaren ekimenetan azaltzen dituen interesagatik, sentsibilitateagatik eta parte hartzeagatik goraipatzekoa baita.

Urrian zehar egindako ekimenek hasia ereiten jarraituko dutelakoan nago. Hitzaldiak, ikerketa-txostena, aitortza-ekitaldia eta Kai zaharrean jarritako panelak, egia, justizia eta erreparazioaren bidean, oroimenerako topalekuak izan daitezela.

ORTZI ALONSO MURELAGA
Kultura, Memoria eta Ondare zinegotzia

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA SALATZEKO ASKOTARIKO JARDUERAK IZANGO DIRA AZAROAN ETA ABENDUAN

Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunaren baitan, Hondarribiko eragileek bi hilabetez luzatuko den egitaraua aurkeztu dute. Guztira, 18 jarduerek osatzen dute, eragile ugariren partehartzearekin. Programazioa azaroaren 4an hasi eta abenduaren 11n bukatuko da Wikiemakumeak izeneko tailerrarekin.

Emeki Emakume Elkarteak, Papillon zine-klubak, Emigrad@s sin fronteras elkarteak, herriko ikastetxeek, Berdintasun Departamentuak, Marlaxka Xake Klubak, Blaganek, Gaztelekuak eta M8 Asanblada Feministak elkarlanean osatu dute Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzeko Nazioarteko Egunaren programazioa. Egun ofiziala azaroaren 25a bada, jarduerak azaroaren 4an hasi eta abenduaren 11ra arte luzatuko dira.

Egitarauak askotariko jarduerak biltzen ditu: lau tailer izango dira (Komunitate emozionala, Amatasuna/isiltzen dena, Indarkeriarik gabeko harreman osasuntsuak eta Wikiemakumeak); beste horrenbeste hitzaldi (Hizkuntza, kultura eta generoa: osasun-arretaren erronkak; Iruñatik Hondarribira xakeaz; Indarkeria matxistaren kontra; eta, Las mujeres de la prehistoria).

Kirolak ere izango du bere tartea: Bixi-Bixi Emakume Pala Toppara, X. Emakume Xake Topara eta lehenengo aldiz jokatuko den Hendaia-Irun-Hondarribia triatloia. Eta nola ez, literaturak eta zinemak; Literatura lan(da)tzen dinamikaren baitan, Elena Ferranteren Adiskide paregabea liburua izango da hizpide, eta, Papillon zine-klubaren eskutik, *Bar Bahar: entre dos mundos* filma ikusteko aukera izango da.

Emigrad@s sin fronteras elkarteak, berriz, "Irregulartasuna indarkeria anizkoitza eta deszentralizatua da" izeneko erakusketa jarriko du Arma Plazan, abenduaren 2tik 16ra, eta erakusketa zabaltzen denean hasiera inaugurazio hitzaldia izango dela iragarri dute.

Aldarrikapenek ere izango dute protagonismoa. Azaroaren 25ean elkarretaratzea egiteko deialdia egin du M8 Asanblada Feministak. Hitzordua arratsaldeko 18:00etan izango da, M8 plazan. Goizean herriko ikastetxeetako ikasleek hartuko dute plaza, Emekirekin batera sare morea osatuko baitute.

Musika-emanaldi bat ere izango da. Olatz Salvador musikariak eta Alaia Martin bertsolariak sortutako *1:1 Eskala* ikuskizuna ikusteko aukera izango dugu azaroaren 22an Itsas Etxea Auditoriumean. Geruzaz geruza gorputzetan pilatzen zaigun erruduntasunaz hitz egiten duen emanaldian, batez ere emakumeen bizitzetan behin eta berriz errepikatzen den kulpak sortzen dituen sentipenaz ariko dira.

Ahalik eta adin tarte zabalenera iristeko asmoarekin prestatutako egitaraua Udaleko webgunean dago ikusgai.

jarri hemen zure iragarkia!

Zure iragarkia "Hondarribia" aldizkarian jarri nahi baduzu, **943 218 899** telefonora deitu edo posta elektronikoz ***alazne@kulturatelier.eus*** helbidera idatzi.

ATE JOKA DAUKAGU AMUA MUSIKA-FILM LABURREN LEHIAKETA

Hondarribiko film-laburren lehiaketa seigarren ediziora iritsi da, eta ate joka daukagu. Aurtengoa, azaroaren 12tik 15era ospatuko da Itsas Etxea Auditoriumean. Iaz bezala, bi lehiaketa egingo dira: film-laburrena eta EITB Bideoklip Lehiaketa. Sari-banaketa ekitaldia larunbatean izango da, azaroaren 14an.

Azaroaren 12an hasiko da seigarren edizioa. Arratsaldeko 19:00etan finalerako sailkatu diren film laburren lehenengo proiekzioa izango da (bost eskainiko dituzte egun bakoitzean), eta, ordu eta laurden beranduago, aurreko edizio guztietan bezala, Diego Rodriguez de Juan musika-adituak zuzentzen eta gidatzen duen *El Sótano* irratsaioa Itsas Etxean zuzenean entzuteko aukera izango dugu. Ondoren, Londresko The Molotov taldeak 2026an argitaratu duen bere lehen lana, *Wasted on Youth*, entzuteko aukera izango da.

Ostiralean, hilaren 13an, goizez Hondarribiko ikasleak izango dira protagonistak eta haientzat bereziki prestatutako film-laburren lagin bat ikusteko aukera izango dute. Arratsaldean lehiaketako azken fasera iritsi diren beste bost film-labur proiektatuko dituzte, eta, eguna bukatzeko, El Combo Batanga taldea ariko da zuzenean eta Kubako musika tradizionala entzuteko aukera izango dugu, beti ere rock, funk edo blues ukituekin.

Larunbatean film-labur onena izendatuko dute, 19:00etan hasiko den ekitaldian. Sari-banaketa ekitaldian Hondarribiko Musika Bandak kontzertu zinematografiko batekin parte hartuko duela iragarri dute. Iluntzean, berriz, 22:00etatik aurrera, *Epic: Elvis Presley in Concert* dokumentala eskainiko dute. Baz Luhrmannen (*Moulin Rouge*) zuzendaritzapean, inoiz ikusi gabeko artxiboko irudiak berreskuratu dituzte.

AMUA igandean amaituko da. Aiora Renteria eta Joseina Etxeberriak itxiko dute aurtengo jaialdia, *Musikeroa* izeneko saioarekin. Euskadi Irratiko kazetariak Zea Mays taldeko abeslaria elkarrizketatuko du, eta bilbotarrak bere musika ibilbidean mugarri izan diren kantuen berri emango du.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, aurten berrogei film-labur aurkeztu dira, eta, EITB Bideoklip Lehiaketara, hamar. Irabazleek, 2.000 eta 1.000 €ko sariak jasoko dituzte hurrenez hurren. AMUA zuzenean jarraitzeko gonbidapenak eskuratzeko, edota, informazio gehiago jasotzeko, amua.eus webgunean jarri dute informazioa eskuragarri.

JAIZKIBELEN SUTEAK PREBENITZEKO ETA PERTSONEN SEGURTASUNA HOBETZEKO LANAK EGITEN HASI DIRA

Gipuzkoako Foru Aldundia, Udalarekin elkarlanean, Jaizkibelgo hegoaldeko hegalean, Hondarribiko aldean, suteak prebenitzeko, pertsonen segurtasuna hobetzeko eta basoaren leheneratze naturala sustatzeko lanak egiten hasi da. Lanak irauten duten bitartean Jaizkibelgo erdiko pista itxita egongo da.

Esku-hartzearen bidez, Jaizkibelgo erdiko pistaren inguruko sute-arriskua murriztu, larrialdietako ibilgailuen joan-etorria erraztu eta bertako basoaren balio naturala babestu nahi du Udalak. Hiru lan mota egingo ditu, suteen prebentzioa areagotzeko, pertsonen segurtasuna handitzeko eta basoaren leheneratzean eragiteko.

Sute-prebentzioa indartzeko, pistaren bi aldeetan, 4,75 kilometroko luzeran, suebaki osagarria sortuko da, zuhaitzen arteko jarraitutasuna eteteko eta, sutea gertatuz gero, suaren hedapena geldiarazteko. Horretarako, baso-pistaren albo banatan dauden zuhaitz eta zuhaixkak moztu edo kimatuko dira. Lanen bidez, suhiltzaileen kamioi eta ur-zisternen ibilgailuen joan-etorria erraztuko da, larrialdi egoeretan esku hartzeko aukera eta eraginkortasuna hobetzeko.

Pertsonen segurtasuna handitzeko, pistaren ertzetan erortzeko arriskua duten zuhaitzak eta adarrak kenduko dituzte. Izan ere, oinezko askok erabiltzen dute ibilbide hori eta funtsezkotzat jo da bidearen segurtasun-baldintzak hobetzea.

Azkenik, basoaren leheneratzean eragiteko, landatutako espezie exotiko batzuk kenduko dituzte, bertako zuhaitzek hazteko leku gehiago izan dezaten. Bereziki, ametza sustatu nahi da, Jaizkibelgo basoaren balio natural handiko espeziea baita.

Urriaren bukaeran hasitako lanak bi hilabeteko epean amaitzea aurreikusten du Udalak, eta bitarte horretan Jaizkibel erdiko pista itxita egongo da eta ezingo da bertatik igaro, baina ordezko bidea eta seinaleak jarriko dituzte.

SOKOA
Albaitaritza Klinika
Hondarribia
09.30-13:00 eta 15:30-19:30
larunbatean
10:00-13:00
943645507
630604293
Donostia kalea, 25. 20280 Hondarribia

mayi agueda iza
DIETISTA·NUTRIZIONISTA
tlf.: 943 11 10 30 · matxin arzu, 6 behea [hondarribia]
www.mayinutrizionista.com

UDAL EUSKALTEGIAK ASPALDIKO MATRIKULAZIO-DATURIK ONENAK LORTU DITU IKASTURTE HASIERAN

Hondarribiko Udal Euskaltegiak indartsu hasi du 2026-2027 ikasturtea. Guztira, 203 lagunek eman dute izena ikasturte hasieran, euskaltegiak 2018-2019 ikasturtetik izan duen matrikulazio-kopururik handiena. Datuak agerian uzten du euskara ikasteko, hizkuntza-gaitasuna hobetzeko eta euskararen erabileran aurrera egiteko duten interesa.

Ikasle kopuru handiena aurrez aurreko irakaskuntzak jaso du. A1etik C1era bitarteko 15 talde osatu dituzte, 164 ikaslerekin, eta taldeetako ikasle-ratioek gora egin dute, matrikulazioaren bilakaeraren erakusgarri. Aurten, gainera, talde guztietan dago goizez zein arratsaldez aritzeko aukera. Antolaketa horrek euskaltegiaren eskaintza ikasleen eguneroko errealitatera egokitu du eta ordutegia lanaldien arabera moldatzeko aukera eman du, eta, egokitzapena, euskara-eskolen jarraipena urte osoan mantentzeko helburuarekin egin da.

Aurrez aurreko eskolen osagarri, autoikaskuntzak bere tokia hartu du aurtengo eskaintzan. C1 eta C2 mailetako ikasleek modalitate horretan matrikulatzeko aukera izan dute, eta 39 lagunek egin dute hautu hori. Bide horri esker, ikasleek beren erritmoan eta autonomia handiagoz jarrai dezakete euskararen ezagutza sakontzen eta hobetzen.

Ostiraletako mintza-praktika ere indartu egin da. Izen-emate kopuru handiari esker, bi azpitalde osatu dituzte: bata, maila apalagoa dutenentzat, eta bestea, maila aurreratuagoa dutenentzat.

Ikasleen profilari dagokionez, aniztasun handia dagoela nabarmendu dute: euskarara lehen aldiz hurbiltzen ari diren herritarrak, urteetako ezagutza sendotu nahi dutenak, egunerokoan euskaraz bizitzeko urratsak ematen ari direnak eta akreditazioa helburu ez dutenak.

Ikasturtea abian bada ere, Gabonen ostean zabalduko da berriz izena emateko aukera.

SMARTPHONEAREN ONURAK ETA ARRISKUAK HIZPIDE MIREN ROS ADITUAREKIN

Gazteen Zerbitzuak "Smartphonearen onurak eta arriskuak" izeneko saioa antolatu du azaroaren 13an Saindua Gaztelekuan (18:00). Miren Rosek gidatuko du saioa, eta pantailen erabileran hezitzaile eta ikertzailea denak familian gerturatzeko gomendioa luzatu du (edukiera mugatua da, gehienez 30 lagun eta familia bakoitzeko 3). Aurrez izena eman beharra dago gib@hondarribia.eus edo Sainduan (izen-emateen hurrenkera mantenduko da, ez da zozketarik egingo). Euskaraz izango da eta ordu eta erdian, mugikorraren erabileraren inguruko hausnarketa egingo dute partehartzaileek. Helduak eta adin txikikoak elkar entzuteko espazio bat sortu nahi du Rosek, elkarrizketa eraikitzaileak sustatzeko helburuarekin. Saio praktikoa izango da; taldeak osatu eta dinamika praktikoak egingo dira pentsamendu kritikoa pizteko. Tailerraren helburua izango da partehartzaile bakoitza ahaldunduta irtetzea.

BATZOKI
TABERNA · JATETXEA

• EGUNEKO MENUA
• MENU BEREZIAK
• KARTA
GURE TERRAZA GOZA EZAZU!
MOURISKOT ETXEA · T. 943 64 53 64 · HONDARRIBIA (GIPUZKOA)

ARRAUN ELKARTEA
GIMNASIOA
Spinin · Zumba · Tonifikazioa · Mantenimendua · Muskulazioa · Sauna · Piraguen alokairua eta gordelekua

MOLLA IBILBIDEA, 5. 20280 HONDARRIBIA 943 640 161

ALFONSO SASTRE IDAZLEA OMENTZEKO EKITALDI SORTA BERE JAIOTZAREN 100. URTEURRENEAN

Alfonso Sastre idazlea gogora ekarriko dute haren lagunek azaroan zehar, idazlearen jaiotzaren ehungarren urteurrenean. Madrilen jaio arren, 1977az geroztik Hondarribia izan zuen bizitoki, Eva Forest bikotearekin batera. Kezka sozial eta politikoak ardaztu zuten bere obra eta bizialdia, eta, adituen hitzetan, gaztelerako antzerkigintzaren modernizazioan mugarri izan zen.

Arma Plaza eraikinak *Alfonso Sastre 100 urte, 1926-2026* erakusketa hartuko du azaroan zehar. Sastreren ibilbide intelektualaren, artistikoaren eta politikoaren bitartez, idazlearen atzean zegoen gizona ezagutzeko aukera eman nahi dute erakusketarekin. Erakusketan argazki ikonikoak jasotzen dira, idazle eta pentsalari gisa izan zuen bilakaeraren testigu. Argazkiekin batera, bere marrazkiak erakutsiko dituzte, hain ezaguna ez den eta asko maite zuen beste diziplina artistiko bat erakutsiz; horrez gain telebistan emandako elkarrizketak, eta bere jardunean oso garrantzitsuak izan ziren bi espazio jasoko dira: antzerkigintzari eskainitako txokoa, La taberna fantástica lanaren proiekzio jarraituarekin, eta idazketa eta irakurketa txokoa, testuak eta pentsamenduak eraikitzeko baliatzen zuen espazioa.

Bestalde, Udal Liburutegian, idazlearen argitalpenekin osatutako erakusketa izango da hilabete osoan zehar. Eta, azaroaren 17an (19:00), Torturaren zutoin beltza liburuaren aurkezpena iragarri dute. Fito Rodriguezek idatzitako liburuak Eva Forestek idatzitako hitzaurrea eta Alfonsoren bi testu jasotzen ditu.

Azaroaren 19an, berriz, *El hijo único de Guillermo Tell* liburuaren irakurketa dramatizatua egingo dute Arma Plazako bigarren solairuan. Mikel Sarriegik zuzendu du 1980. urtean idatzi eta 83an argitaratu zen Sastreren liburua.

Alfonso Sastre omentzeko egitaraua azaroaren 21ean amaituko da, errautsak lurperatzeko ekitaldiarekin. Kanposantuan egingo dute ekitaldia, hainbat jarduera artistiko egingo dituzte eta errautsak Kandido Saseta komandantea eta Jose Bergamin idazlea lurperatuta dauden hobien ondoan botako dituzte. Ondoren, idazlearen omenez egindako eskultura jarriko dute.

GARBITEGIA
Garbi goxo
VENDING - MASKOTA GARBITEGIA
Puiana Kalea, 18
621 150 979
www.garbigoxo.com
TXAKUR
ILE-APAINDEGI
ZERBITZUA
621 153 065

AIMAR
IRIGOIEN
TEL. 605 77 36 40
EGURREZKO ZEIN BURDINEZKO ESTRUKTURAK · TEILATUAK
DESBROZATZE ZEIN LORAZAINTZA LANAK · IGELTSERITZA OROKORRA
www.aimaririgoien.com

ORDEZKARI POLITIKOEN IRITZI ETA IRADOKIZUNAK

ETXEBIZITZA-DEPARTAMENTU PROPIOAREN GARRANTZIA

Hondarribiko Udalean etxebizitza-departamentu propioa sortzea mugarri garrantzitsua da gure udalerriaren etorkizun zein gizarte-kohesioarentzat. Orain arte gertatu ez bezala, tresna honi esker, Udalak jasoko dituen etxebizitza publikoen kudeaketa bertatik eta modu zuzenean egingo da, hondarribiarren behar errealak erdian jarriz. Plan Orokorra onartzearekin bat, Udalak sustapen ezberdinetatik eskuratuko dituen etxebizitza publikoak modu autonomo eta eraginkorrean kudeatzeko gaitasuna izango du. Horrela, erantzun sendoa eta hurbila emango zaio herritarrek etxebizitza duina eta eskuragarria izateko duten eskubideari. Gainera, prozesu hau guztion artean eraikitzen ari gara. Gaur egun, parte-hartze fase batean gaude murgilduta, babestutako etxebizitzen esleipena eta erabilera arautuko dituen ordenantza osatzeko. Parte-hartze honen helburua argia da: araudia hondarribiarren benetako premietara eta bidezkotasun-irizpideetara egokitzea. Departamentu berri hau eta garatzen ari garen ordenantza ez dira administrazio-urrats hutsa; Hondarribiko gazte zein familiek beren bizi-proiektua udalerrian bertan garatu ahal izateko konpromiso irmo eta tokikoa dira. Gertutik, kudeaketa hobea eskuratzen delako gure herritarrentzat.

Abotsanitz

EAJ-PNVK BERE KONPROMISOA BETE DU

Abotsanitzek azken egunotan esandakoaren aurrean, argi utzi nahi dugu EAJ-PNVk Hondarribiarekin hartutako konpromisoa bete duela. Madrilgo akordioari esker, uztailean kirol-lursailen beharrik eza deklaratu zen. Orain, Udalari dagokio Ogasunak eskatutako dokumentazioa osatzea, doako lagapena gauzatu ahal izateko. Aste honetan baieztatu digutenez, lan hori oraindik egin gabe dago. Hondartza futbol-zelaiaren belar artifiziala berritzeko baimena ere uztailetik dago. Udalak proiektua eguneratu eta lizitaziora atera behar du; prozedura martxan dago, eta azken izapideak baino ez dira geratzen. Beraz, EAJ-PNVk bere esku zegoena egin du. Orain, Udalari dagokio aurrera egitea. Hondarribiak zarata politiko gutxiago eta konponbide gehiago behar ditu.

EAJ-PNV

TURISMO JASANGARRI BATEN ALDE

Turismoak Hondarribian duen garrantzia ez du inork zalantzan jartzen, baina beharrezkoa da jarduera hori hondarribiarron eguneroko bizitzarekin bateragarri egitea. Horregatik uste dugu aukera interesgarria litzatekeela bi tasa turistiko ezartzea: udarako bat, eta, gainontzeko hilabeteetarako beste bat. Gainera, irizpidea beste udal-zerga batzuetan aplika daitekeela pentsatzen dugu. Tasa turistikoak, neurri batean, turismoaren masifikazioak sor ditzakeen gainkostuak estali beharko lituzke. Hala ere, haratago joan behar dela uste dugu, eta etxebizitza turistikoen inguruko arautegi bat eskatzen dugu. Etxebizitza turistikoek bizilagun-blokeen arteko elkarbizitza desitxuratu egiten dute, bizitokia eta opor-tokia ez baitira gauza bera. Egia da, indarrean dagoen arautegian egoera saihesteko erremintak ematen zaizkiela bizilagun-komunitateei, baina Hondarribiko sozialiston iritzi, etxebizitza turistikoak arautzeko ordenantza sortzeko urratsak eman behar dira, eta, bide batez, baita etxebizitzaren arazo larria konpontzera bideratutakoak ere.

PSE-EE

ATZERA DOAN AUTOBUS ZERBITZUA

Iritsi da Ekialdebuseko emakida berria, zeina indarrean izango den datozen hamar urtetan. Egungo errealitateari ez ezik, etorkizunekoari ere erantzun beharko lioke; bada, ez da hala. Erronkez beteriko garai bati erantzun behar dio autobus zerbitzuak, baina, horren ordez, hasieratik, murrizketak planteatu ditu Hondarribiarrentzat. Izan ere, Aldundiak egindako planteamenduan, zerbitzu batzuk beste batzuen kaltetan indartu dira; bereziki aipagarriak dira Donostiarekin, Irunekin eta Errenteriarekin galduriko maiztasunak. EHBildutik herritarrengan sortutako ezinegonarekin bat egin dugu hasieratik, bai herri mailan, bai Bidasoa mailan eta baita Batzar Nagusietan ere, emakidaren arduraduna Gipuzkoako Foru Aldundia delako, zeina EAJ-k eta PSE-k gobernatzen duten. Hori dela eta, EHBilduk murrizketak albora ditzala eskatu dio Aldundiari Batzar Nagusietan, baita zerbitzua zegoen bezala berrezartzeko eta autobusari benetako bultzada emateko ere.

EH Bildu

IKER KARRERA PEÑA

"Diziplina ezberdinak nahastea aberasgarria da, gustatzen zait formatu ezberdinetara egokitzeko ahalmena izatea"

Iker Karrera Peña (Hondarribia, 1985) eta dantza bereizezinak dira. Amak, Pilar Peñak, dantza-akademia zabaldu zuen Hondarribian eta orduak eta orduak pasatzen zituen bertan, dantzan eta dantzariak ikusten. 18 urterekin Madrilera joan zen ikasketak burutzera, eta, Ikus-entzunezko Komunikazio ikasketak bukatu eta lehen lan-kontratu eskaintza jaso zuenean, dantza munduan erabat murgiltzeko erabaki ausarta hartu zuen. Egun, izen handiko koreografoa da.

AITOR AZKONOBIETA BERASATEGI

Ezagutzen ez zaituenarentzat, nola aurkeztuko zenuke zure burua?
Dantzari eta koreografo hondarribiarra naiz; 18 urterekin Madrilera joan nintzen karrera bat ikastera eta dantza munduan hobetzera, dantzarena oso presente izan baitut beti.

Kuriositatez, zer ikastera joan zinen?
Telekomunikazio Ingeniaritza bat ikasten hasi nintzen, baina ez zitzaidan gustatu eta Ikus-entzunezko Komunikazioa ikasi nuen. Karrera bera Bilbon zegoen, baina Madrilgo dantza-akademia batzuk ezagutzen nituen ordurako eta bertan jarraitzea erabaki nuen. Goizetan unibertsitatera joaten nintzen eta arratsaldez, dantza-akademiara. Karrera amaitzean praktikak egin nituen enpresa batean eta gero lanean jarraitzea eskaini zidaten.

Baina zuk dantzaria izan nahi zenuen.
Hori da. Inflexio puntua izan zela esango nuke eta dantzari profesionala izateko apustua egin nuen. Hori zen momentua!!! Gero, dantzari izatetik koreografo izatera pasa nintzen; erakargarriagoa egiten zitzaidan. Koreografia munduan murgiltzen hasi nintzen eta geroz eta proiektu interesgarriagoak eta handiagoak iristen hasi zitzaizkidan, eta, hementxe nabil.

Zure izen bereko ultra trail korrikalari amezketar bat dagoela badakizu? Dantzari baten ibilbidea konpara daiteke iraupen luzeko lasterketetako korrikalariaren ibilbidearekin?
Ezagutzen dut, bai. Korrika mundua ez dut gehiegi ezagutzen, baina badaude antzekotasunak: bietan beharrezkoa da epe luzeko begirada izatea; ez dira punta-puntako jarduerak eta bigarren plano batean gaudela esango nuke; biak ala biak oso sakrifikatuak dira eta ahalegin pertsonal handia eskatzen dute; konstantzia beharrezkoa da… Eta koreografoen kasuan, korrikalarienean ez dakit, beti egon behar zara ikasten, birziklatzen, gorputza zaintzen… Inoiz ez naiz bi diziplina hauen arteko antzekotasunak aztertzen jarri, baina, badituzte partekatzen dituzten ezaugarri ugari.

Dantzari eta koreografo profesionala izatera iritsi zara. Korrikalariekin konparaketarekin jarraituz, hori izan da zure helmuga edo iraupen luzeko lasterketako puntu jakin bat da?
Dantza-munduan profesionala izatera iristea bada helmuga bat, ez baita erraza. Askotan gertatzen zaigu, eta korrikalariei ere gauza bera gertatuko zaie lasterketak irabazten dituztenean, ikuskizun bat estreinatzen dugunean fokopean egoten garela, nolabaiteko protagonismoa hartzen dugula, baina oso une iragankorra da eta atzetik dedikazio handia dago, ordu asko entsegu-gelan.

Zein momentutan zaude orain?
Ibilbide bat eginda daukat, baina nire sentsazioa da hasiberria naizela eta oraindik ere gauza asko dauzkadala egiteko. Proiektu askotan parte hartzeko zortea izan dut, elkarren artean oso ezberdinak direnak gainera. Batetik bestera pasatzen naizenean, sentsazioa daukat zerotik hasi beharra daukadala, eta sentsazio hori oso aberasgarria da, ikasketa prozesu etengabe batean nagoela iruditzen zaidalako. Bitartean, nire lanerako beharrezkoak diren erramintak ezagutzen eta barneratzen nabil eta horrek konfiantza ematen dit proiektu berri bat hasi behar dudan bakoitzean.

Erronka berezirik baduzu? Egitea gustatuko litzaizukeen zerbait?
Inoiz ez dut izan helburu edo erronka bat, ez dut "hau egin nahi dut" bat inoiz buruan izan. Baditut ideia batzuk, baina eguneroko-

> *"Txiki-txikitatik hasi nintzen dantzan. Umetan musika asko entzuten nuen, bideoklipak ikusi eta dantzak ikasten nituen. Hondarribian ez zen oso ohikoa nire adineko mutil bat dantzan aritzea, baina nik oso argi neukan. Amak akademian dantza askatasunez egiteko aukera ema zidan"*

tasunak proiektu batetik bestera eramaten nau eta horren entretenituta edo lanpetua egonik, zer nahi dudan ahaztu egiten zait. Daukatenarekin oso pozik nago eta *check* hori egina daukat: koreografoa naiz, maila profesionalean nago, jende ikaragarria ezagutu dut, askotariko proiektuetan parte hartzeko aukera izan dut… Orain arte bezala jarraitzea sinatuko nuke oraintxe bertan.

Lehen kontatu didazu dantzari izatetik koreografo izatera pasa zinela. Nolakoa izan zen trantsizio hura?
Dantzari izateko ikasketak egiten dituzunean, horixe daukazu buruan, dantzaria izatea. Ez duzu beste ezer ikusten. Horrela hasi nintzen, eta nire gauzatxoak egin nituen dantza munduan, baina duela 20 urte Madrilen zegoen dantza panorama ez zitzaidan gehiegi gustatzen. Ordurako, dantza-klaseak ematen nituen eta ikasleentzat koreografia txikiak sortu behar izaten nituen. Sorkuntza horiei esker gerturatu nintzen koreografia-mundura eta 2016an nire konpainia sortzea erabaki nuen. Hasieran lan txikiekin, gero handiagoekin, telebista-munduan sartu nuen muturra, espero gabe egia esateko, eta jauzi horrek ate asko ireki zizkidan. Ikasketa-prozesu brutala izan zen: lantalde handiak, kameraz betetako eszenatokiak… beste dimentsio bat.

Koreografoarena dantzariarena baino bizitza luzeagoa da. Horrek ere eragina izan zuen saltoa emateko garaian?
Orain dela hamar bat urte galdera egin nion neure buruari: "Iker, nola nahi duzu egon hemendik hamar urtetara?" Hausnartzen hasi nintzen eta ohartu nintzen mentalki gogorragoa izan badaiteke ere, fisikoki eramangarriagoa dela koreografoarena. Egia da, dantzariak bere buruan baino ez duela pentsatu behar, eta, koreografoak, konpainia osoan, baina, beste abantaila batzuk ematen ditu.

Atzera begira jarriko gara orain. Zergatik da Iker Karrera gaur egun koreografoa?
Amak dantza akademia bat du Hondarribian, jaio nintzenean zabaldu zuen, Pilar Peña dantza-akademia. Bizitza osoa pasa dut dantza-eskolan klaseak hartzen, klaseak ikusten… Horrek eragina izan zuen, noski, baina beti izan dut dantzarekiko pasioa. Begira, nik ere dantza akademia bat daukat Madrilen, 180Pro, eta bertan ikusten ditut bi motatako ikasleak: 16-18 urterekin dantzan hasten direnak eta txiki-txikitatik hasten direnak. Ni azken horietako bat nintzen. Umetan musika asko entzuten nuen, bideoklipak ikusi eta dantzak ikasten nituen. Hondarribian ez zen oso ohikoa nire adineko mutil bat dantzan aritzea, baina nik oso argi neukan. Amak akademian dantza askatasunez egiteko aukera ema zidan.

Halakoetan, beti egoten da erreferentziazko mugarri bat. Zein da zurea?
Oso mutil isila nintzen, eta normalean, dantzariak pertsona ausartak dira, pertsona irekiak. Ni ez nintzen horrelakoa. Hondarribian hartzen nituen klaseez gain, 14 bat urterekin edo, Donostiara eta Bartzelonara joaten hasi nintzen klaseak jasotzera. Hor ikusi nuen egiten nuena gustagarria zela, arreta deitzen nuela. Nire garaian, Hondarribian dantza-munduan nabarmentzea ez zen zaila, baina, kanpora joan eta nabarmentzea ez zegoen nire planetan. Orduan hasi nintzen dantzaria izan nintekeela amesten. Eta Madrilera joan nintzenean, dantza-munduko jende asko ezagutu nuen eta mundu horretan barneratzen hasi nintzen. Oso modu progresiboan izan zen eta ohartzerako, nire lehendabiziko kontratua neukan.

Beste mugarri garrantzitsu bat izango zen karrera bukatu eta praktikak egin zenituen enpresan eskainitako lanari uko egitea dantzari profesional bihurtzeko.
Bai. Momentu horretan dantzari izateko formazioa jasotzeari lehentasuna eman nion; Carmen Roche izeneko dantza-eskola batean hasi nintzen eta egunero joaten nintzen ikastera. Bizitza aldatu zitzaidan, ordura arte ikasketak izan ziren jomuga, eta, hortik aurrera, dantzara aldatu nuen fokoa.

2016 urtean Iker Karrera akademia sortzen duzu eta aurretik, 2013an, 180Pro sortu zenuen. Bertan, besteak beste dantza eskolak ematen dituzue eta pentsatzen dut nolabaiteko estabilitate ekonomiko bat ematen dizula.
Nire proiektu garrantzitsuena 180 Pro dantza-eskola da. Gogoan dut gainera, zergatik sortu genuen, behin eta berriro errepikatzen

genion gure buruari dantza-eskola zabaldu genuela bestelako proiektuak egin ahal izateko. Hau da, dantza-eskolak ematen digun estabilitate ekonomikoa bestelako proiektuak egiteko baliatzen dugu. Bestelako proiektuak askatasunez aukeratzeko aukera eman digu; proiektu batzuei ezetz esatekoa eta gustuko ditugunak hartzekoa. Horrek asko balio du, luxu hutsa da.

Dantzaria, koreografoa eta irakaslea. Zinema, telebista, antzerkia, publizitatea, ekitaldiak... denetarik egin duzu. Diziplina edo esparru bakarrean lerrokatzea ez zaizu gustatzen edo denetarik egin beharra dago dantzaz bizi ahal izateko?
Niretzat positiboa da proiektu ezberdinetan aritzeko gaitasuna izatea. Gaur egun gainera, diziplina ezberdinen arteko kolaborazioak oso ugariak eta emankorrak dira: antzerkia eta telebista, antzerkia eta kontzertuak, orain dena nahastu egiten da. Iaz, esaterako, Aitanarekin bira bat egin genuen eta dantzari gehienak garaikideak ziren. Diziplina ezberdinak nahastea ona da, beti ere errespetuz, baina gustatzen zait formatu ezberdinetara egokitzeko ahalmena izatea.

Tartean, hainbat sari jaso dituzula irakurri dut. Badago baten bat ilusio berezia egin dizuna? Zergatik?
Gipuzkoako Dantzari Profesionalen elkarteak urtero sari bat ematen du eta 2021ean jaso nuen. Ez nuen espero eta izugarrizko ilusioa egin zidan.

Dantza mundua ezagutzen ez dugunontzat, badago sariren bat bere garrantziagatik nabarmendu nahiko zenukeena?
Musikalekin eta konpainiarekin irabazi ditut batzuk, eta, garrantzitsuak izan arren, ez dira horrenbesterako. Errekonozimenduak ongi-etorriak izaten dira, batez ere lehen lerroan jarri eta ikusgarritasuna ematen dizutelako.

Udan *Mamma mia* musikala izan da Donostian. Koreografo lanak egin dituzu bertan.
Enkargua sorpresaz iritsi zitzaidan, baina asko disfrutatu nuen. *Mamma Mia* aspaldi estreinatu zen Madrilen, eta nik bertsio berri bat egin nuen, musika eta istorioa mantendu dira, baina gainontzekoa berria da. Lehen mailako dantzariak hartu genituen eta arrakastatsua izaten ari da. Oraindik biran dago, denboraldi honetan Bartzelonan. *Mamma Mia* nire lehenengo musikala izan zen eta ondoren etorri ziren *The Book Of Mormon* eta *Wicked*, orain *Querido Evan Hansen*-ekin nabil. Oso pozik nago beste erronka bat delako, beste erregistro batzuekin. Aktoreekin eta musikariekin aritzea oso aberasgarria da.

Zer duzu orain eskuartean? Non ikus genitzake zure koreografo lanak?
Dantza garaikideko konpainia bat ere badaukat eta azaroan Medina del Campon (Valladolid) izango gara eta abenduan Cannesera goaz (Frantzia). Eta Madrilera bisitan bazatozte, bi musikal dauzkat aldi berean: *Wicked* eta *Querido Evan Hanse*n.

Eta noiz ikus genezake Iker Karrera Hondarribian?
Gabonetan eta udan joaten naiz batez ere. Bertan dena oso eskura dagoela iruditzen zait, bizitza-kalitate gehiago dago. Joatea kosta egiten zait, horrela da, baina, bertan nagoenean Madrilera bueltatzea are gehiago kostatzen zait. Hemen egonda koadrilarekin eta familiarekin gauza asko galtzen dira. Baina tira, bueltatzen naizenean segituan konektatzen dut berriro hemengo bizimoduarekin.

> *"Gabonetan eta udan joaten naiz batez ere Hondarribira. Bertan dena oso eskura dagoela iruditzen zait, bizitza-kalitate gehiago dago. Joatea kosta egiten zait, horrela da, baina, bertan nagoenean Madrilera bueltatzea are gehiago kostatzen zait. Hemen egonda koadrilarekin eta familiarekin gauza asko galtzen dira"*

BEHAR BIDASOA: 50 URTE AUKERAK SORTZEN

AITOR AZKONOBIETA BERASATEGI

Arma Plaza Fundazioak Kabuga: 50 urteko bidea erakusketa jaso du urrian zehar. Behar Bidasoa Gobernuz Kanpoko Erakundeak antolatu du, bere sorreraren 50. urteurrenean. Estitxu Ortolaiz Emparan (Hondarribia, 1975) argazkilari hondarribiarrak iaz Kabugara egindako bidaian ateratako argazkiekin ondu dute erakusketa, baina, Maria Serrano Olascoaga (Hondarribia, 1984) GKEko komunikazio arduradunak kontatu digunez, erakusketak ez du islatzen mendi erdian egindako eskuhartzearen dimentsioa.

Behar Bidasoa Gobernuz Kanpoko Erakundea 1989. urtean jaio bazen ere, ordurako, Jose Ramon Amunarriz Rodriguez misiolariak dozena bat urte zeramatzan Kabugan (Ruanda). "Kasualitatez iritsi zen, Kigalira, hiriburura, bidali zutelako. Kirola egitea gustuko zuen, eta, korrika egitera atera zen batean ezagutu zuen", kontatu digu Maria Serrano Gobernuz Kanpoko Erakundeko komunikazio arduradunak.

Ikusi zuen panoramak barrenak mugiarazi zizkion: banana zuhaitzak, eurite eta haize boladekin erortzen ziren etxolak, landare diseminatuak… "Zerbait egin beharra zuela sentitu zuen, eta Irungo lagunekin jarri zen harremanetan, eskutitz bidez. Agustin Ugarte Manterolari idatzi zion, urtetan Behar Bidasoako presidentea izan zenari, eta segituan osatu zuten sarea".

Jose Ramon gizon ikasia zen. Teologia ikasketak eginak zituen, baita Soziologia ikasketak ere. "Pentsamendu aurreratua zuen bere garairako", nabarmendu dute Gobernuz Kanpoko Erakundean. "Argi zeukan lagundu egin behar zitzaiela, baina laguntza emateko moduan berritzailea izan zen. Lehenengo fase batean, premiazko beharrak asetzeari ekin zioten: janaria, arropa, erremintak… Urrats bat haratago joan zen ordea; bere filosofia esaldi ezagun batekin laburtzen zuen misiolariak: ez dizkiegu arrainak eman behar, arrantzarako tresnak behar dituzte, eta, noski, arrantza nola egiten den erakutsi behar zaie". Komunitate bezala eta pertsona bezala hazteko oinarriak ematea zen bere erronka.

Ondoren, azpiegiturak sortu eta zerbitzuetan jarri zuten arreta, batez ere, hezkuntza eta osasun esparruetan. "Lehen Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako eskolak sortu ditugu: arotza-tailerra edo ikus-entzunezkoena, esate baterako. Halako ekimenak bideratzea gazteak Kabugan geratzeko modu bakarra da, bestela hiriburura joaten dira".

Emakumeen ahalduntzean emandako urratsak nabarmendu dituzte ere berean. Emakumeen Kooperatiba bat sortu dute eta Kabugako emakumeak gizartean beste rol bat hartzen hasi dira. "Eskuhartze hauei esker, emakumezkoek bere ahots propioa hartu dute gizartean. Orain arte etxeko-zaintzan aritu dira, orain ere bere ardura izaten jarraitzen dute, baina proiekzio handiagoa lortzen ari dira".

Zenbat lagunengana iristen diren galdetuta, zenbaki zehatzik emateko moduan ez daudela aitortu digute, "baina asko dira. Pentsa, hilabetero egiten dugun janari-banaketan, bataz beste 200 familiek jasotzen dute janaria; urte guzti hauetan 300 etxebizitza baino gehiago egin dira; eskolak sortu ditugu eta zenbatezinak dira bertatik pasa diren ikasleak".

Etorkizuneko erronkez galdetuta, "pobrezia sistematikoan" bizi diren pertsonak laguntzera bideratu nahi dute Behar Bidasoa GKEren jarduna. "Etorkizun hobea ematea da helburua, baina, horretarako, sinetsi beharra dute gaitasuna dutela, beren buruan konfiantza irabazi behar dute, eta, horretarako, mentalitate aldaketa bat beharrezkoa ikusten dute.

SENTSIBILIZATZEKO ERAKUSKETA

Gobernuz Kanpoko Erakundeak 50 urte hauetan egindako lana ezagutzeko aukera jarri dute *Kabuga: 50 urteko bidea* izeneko erakusketarekin. Maria Serranok aurreratu digu egindako eskuhartze guztia ez dela jasotzen, baina nabarmendu du erakusketarekin "hondarribiarrak sentsibilizatzeko" helburua betetzen ari direla . "Azken finean, kooperazioak bere fruituak ematen dituela erakutsi nahi dugu. Zabaldu nahi izan dugun mezua izan da gure keinu edo aportazio txiki batek izugarrizko eragina duela Kabugan".

Ildo horretatik, Ama Guadalupekoa ikastetxeko DBH1eko ikasleekin egindako lanketa jarri du balioan. "Lehendabizi, ikastetxean landu dute gaia eta erakusketa bisitatzea lanketa horren osagarria izan da. Bertan, sortu ditugun informazio-panelak irakurri eta bideoak ikusi dituzte, informazio-txosten banarekin joan dira etxera".

Lanketa horri esker, Afrika, Ruanda eta Kabuga kokatzen ikasi dutela kontatu digute, "baina, batez ere, daukatena baloratzen ikasi dute: goizean esnatu eta eskolara joan aurretik ura, elektrizitatea, arropa, janaria… Kabugako haurrek ura hartzeko bakarrik, etxetik atera behar dute uraren bila eta errealitate hori ezagutu dute. Hemen, kexaka joaten dira eskolara, eta, han, ikastea luxu bat da. Konparaketa hori egitea nahi izan dugu".

Helduekin ere sentsibilizazio lanketa hori egin dute. Erakusketarekin batera, bisita gidatuak antolatu dituzte, argazki bakoitzaren atzean gordetzen den errealitatea azaltzeko.

Erakusketa osatzen duten argazki eta bideoak Estitxu Ortolaizek egindakoak dira. 2025eko urrian hamar eguneko egonaldia egin zuen Kabugan, "esperientzia ikaragarria" izan da; "oso exijentea, argazkiak atera eta atera eta bideoak grabatu eta grabatu pasa ditudalako hamar egunak, baina aldi berean izugarri asebete nauena".

Joan aurretik Kabugan aurkituko zuen errealitatea barneratzeko ariketa egin arren, errealitateak fikzioa gainditu duela kontatu digu. "Kabuga oasi moduko bat da, mendian galduta dagoen lekua zoragarria. Baina ez nuen espero horrenbeste jende bizitzea pobrezia-egoera horretan, txaboletan, urik gabe…".

Muturreko egoeran bizi diren pertsonei erretratuak egiteko esperientzia ahaztezina izan dela azaldu digu, eta, egoera bat iltzatuta duela aitortu digu: "Gogoan dut egun batean ogi-apur bat sobratu zitzaigula eta nola etorri zitzaizkigun ogi-apurraren bila, haientzat altxorra zen. Bueltan, supermerkatura joan nintzen lehen egunean, izugarrizko talka sentitu nuen, nola da posible hemen horrenbeste janari edukitzea eta han dabiltzan bezala ibiltzea. Hemen txorakeria gehiegirekin bizi gara eta halako bidaia batek, beste ikuspegi bat ematen dizu. Pertsona guztiok bizi beharko genuke halako esperientzia bat".

Kabugako emakumeen edertasunak ere atentzioa deitu diola kontatu digu argazkilariak. "Ez daukate ezer, baina bi trapu jartzen dituzte eta oso ederrak dira".

Hondarribiko Arma Plazako erakusketak ateak itxi ondoren, Irunen jarriko dutela aurreratu digute. Kaleko erakusketa bat izango da, azaroan zehar. Eta azaroaren 12an Irungo Amaia antzokian Behar Bidasoaren 50. urteurreneko ospakizun festa antolatu dutela aurreratu dute. Jaialdian zehar mende erdiko ibilbidea jasotzen duen dokumentala aurkeztuko dute.

KABUGAN BAKARRIK EZ

Behar Bidasoa GKEren eskuhartzea mende erdiko ibilbide honetan ez da Kabugara mugatu. Gaur egun hiru egitasmo bideratzen dituzte: Kabugakoa, Pereirakoa (Kolonbia) eta Villarricakoa (Paraguay).

Pereiraoka duela 20 urte abiarazi zuten, bertako moja batzuekin elkarlanean (Hermanas Pasionistas). Emakumezkoentzat ahalduntze zentro bat zabaldu dute eta ikasketak eskaintzeaz gain (jostun-lana, estetika gradua…), ekintzailetza

proiektu txikiak jarri dituzte martxan eta GKEren iritziz, "oso proiektu interesgarria da, formazioa emateaz gain, hemendik bideratutako kapitalarekin enpresa txikiak zabaltzeko aukera ematen zaielako".

Hirugarrena Villarricako nekazari indigenekin batera garatzen ari dira. Besteak beste, prestakuntza eta nekazaritza-garapena sustatu ditu Nekazaritza Prestakuntza eta Gaitze zentroak eraikiz eta handituz; familia askori, bereziki emakumeei, negozio txikiak martxan jartzen eta diru-sarrera propioak sortzen lagundu die mikrokredituen eta enpresa-inkubagailuen bidez; hainbat ekoizpen-ekimen bultzatu ditu, hala nola jantzigintza-, artisautza-, berotegi-, aleen ekoizpen- eta erlezaintza- edota burdinola-tailerrekin.

Lankidetzak hezkuntza ere babestu du, beken eta apadrinamenduen bidez, eta haurrei arreta eta laguntza humanitarioa eskaintzen dieten programetan parte hartu du. Hori guztia, helburu argi batekin: pertsonek beren etorkizuna eraikitzeko baliabideak eta aukerak sortzea. Jopoi Elkartearekin ari dira proiektu horiek bideratzen.

Kasu guztietan, Behar Bidasoko ordezkariak lankidetzan aritzen dira tokian tokiko elkarteekin. "Guretzat funtsezkoa da. Harremana zuzenekoa da, gertukoa. Berme moduko bat da guretzat, proiektuak garatzeko bideratzen ditugun ekarpenak zuzenean ematen dizkiegu eta gero, berea da kudeatzeko ardura".

Koordinazio edo jarraipen bilerak egiteko, hilean behin bideo-bilerak egiten dituzte eta, egunerokotasunean suertatzen diren gorabeherak modu azkarrean bideratzeko, harremana wasap bidezkoa dela kontatu digute. "Normalean, urteroko plangintzak egiten ditugu; beharrak identifikatu eta horiek asetzeko proiektuak sortzen ditugu eta, noski, finantzazioa lortu beharra dago".

GKEREN ETORKIZUNA

Maria Serrano komunikazio-arduradunak emandako datuen arabera, gaur egun zortzi lagunek osatzen dute Behar Bidasoako Batzordea. Proiektuak aurrera eramateko, ordea, hiruzpalau laguneko lantaldea ari da lanean. Adineko pertsonek osatzen dute lantaldea eta azken urteetan, lantaldea gaztetzeko ahalegina egiten dabiltzala kontatu digu.

Orain arteko lana boluntario-lana izan da, eta, orain dela bi urte profesionalizaziorako bidea hartzeko erabaki estrategikoa izan zela kontatu digu. "Bi helbururekin hartu zen erabakia; batetik, belaunaldi gazteak erakartzeko, eta, bestetik, dirulaguntza publikoak jasotzeko zailtasunari aurre egiteko, izan ere, finantzazioaren bidea jorratzeko langile baten figura beharrezkoa ikusten genuen".

Gaur egun, GKEren finantzazio-iturri nagusia herritarrek egindako ekarpenak dira. "Urte hauetan guztietan irabazi dugun sinesgarritasunak egiten du posible ekarpen horiek jasotzea, diru-ekarpena egiten dutenek nolabaiteko bermea dutelako diru hori GKEak bideratzen dituen proiektuetara iristen dela. Pentsa, etxebizitzak herentzian ere utzi izan dituzte. Horri esker, Behar Bidasoaren hainbat proiekturen jarraipena bermatuta dago hainbat urtetan".

Bukatzeko, bi mezu zabaldu nahi izan ditu komunikazio arduradunak. "Aldizkariak ematen didan aukera aprobetxatuz, eskerrak eman nahi dizkiet diru-ekarpenak egiten dituzten norbanako, enpresa, instituzio eta abarrei. Eta, bide batez, herritarrak animatu nahi ditut Behar Bidasoara gerturatzeko, ongi-etorriak izango dira".

HONDARRIBIKO HITZAK

MAKUTZIK
Manga motzean.
- *"Laster negua elduki ta bukatu ttire MAKUTZIK ibiltzeko egunak".*

SEXANTE
Norabide gabe ibiltzea, "burtik fana".

SARRASTAKUA
Sarearen haustura, ebakia.

KETXUS PONCE GONZÁLEZ
EUSKALTZALEA

NOLA IDAZTEN DA?

Ahozkoan denak balio du, idatzizkoan horrela hobe

NOLA ZAUDETE? NOLA DAUDE GALDEREN ERANTZUNAK.

✓	x
- Nekatu**ta** gaude.	- Nekatu**tak** gaude.
- Aspertu**ta** daude.	- Aspertu**tak** daude.

ITXASNE SUSPERREGI VÉLEZ DE MENDIZABAL

“70 minututan arropa garbitu, lehortu eta erosketak eginda itzultzen da jendea etxera”

Haurren zaintza lanak amaituta, langabezian zegoen Itxasne Susperregui Vélez de Mendizabal (Hondarribia, 1975), eta orduan Marina Garbitegia zabaltzea erabaki zuen. Merkatu-azterketa egin eta 2025ean zabaldu zuen. Urtebete honetan, “oso pozik” dagoela kontatu digu.

Nolatan bururatu zitzaizun Marina Garbitegia zabaltzea?
Haurrak jaio zirenean lana uztea erabaki nuen; senarra arrantzalea da eta zaintza nire kargu hartzea erabaki genuen. Urte asko pasa nituen langabezian eta egun batean, oilasko erreak saltzen dituzten koinatuekin hizketan, mahai-zapiez hizketan aritu ginen, eta, hor sortu zen garbitegia zabaltzeko ideia.

Hondarribian izan behar zuela argi zeneukan?
Bai, bai. Merkatu-azterketa bat egin nuen eta Irunen hamalau daudela ikusi nuen. Hondarribian bakarra zegoen eta beste bat zabaltzea erabaki nuen.

Zein dira eskaintzen dituzun zerbitzuak?
Bi motako zerbitzuak ematen ditut: autozerbitzuarena, jendea etortzen da eta bere arropa edo dena delakoak garbitu eta lehortu egiten ditu; eta, herriko zenbait jatetxeei ematen diedana, neronek garbitzen, lehortzen eta tolesten dizkiet mahai-zapiak, ezpainzapiak edo behar dutena.

Nola kudeatzen da halako negozio bat?
Autozerbitzuaren kasuan, nire lana makinaria egoera onean dagoela bermatzea da. Hala ere, ni ere bertan egoten naizenez, ba, tarteka laguntza eskatzen didate, eta, noski, ahal dudan neurrian laguntzen saiatzen naiz.
Inpresioa daukat gero eta garbitegi gehiago daudela. Hala da? Eta zergatik dela uste duzu?
Horrela da, bai. Pentsa, atzerrian, etxebizitza askotan ez dago garbigailurik. Hemen, oraindik ez da halakorik, baina, oso erosoa da arropa hemen garbitzea. 70 minuturen bueltan, arropa garbia eta lehorra daukazu. Eta bitarte horretan, aukera daukazu erosketak egiteko edo patxada ederrean kafetxo bat hartzeko. Gure garbitegia, gainera, herri-zentroan dago. Gizarteko ohiturak aldatzen ari diren neurrian, esango nuke, garbitegietara gero eta jende gehiago etortzen dela.

Bezeroen artean, badago nabarmentzen den adin tarterik? Edo urteko sasoi jakinik?
Adin tarteari dagokionez, etortzen diren bezeroak askotarikoak dira. Gazteek beste mundu-ikuspegi bat daukate, ohitura-aldaketak errazago barneratzen dituzte. Baina adineko jendeak beste behar batzuk dauzka. Uda partean, turista asko etortzen da. Eta bigarren galderari erantzunez, urtaro-aldaketak izaten dira jendetsuenak. Badakizu, orduan kentzen ditugu edredoiak eta aldatzen dugu arropa.

Bukatzeko, zein neurri hartuko zenuke tokian tokiko merkataritza sustatzeko?
Sentsibilizazio kanpainak egitera bideratuko nituzke indarrak. Hondarribian merkataritza sektorea oso indartsua da eta herritarrak hemen kontsumi dezaten sentsibilizatzea lortuko bagenu, elkar elikatuko ginateke.

NORK NORI

NORK
MANEX ARZAK IRIDOY
(@laiayoga_manex), yoga praktikante eta irakaslea

>>

NORI
ISLE DUÑABEITIA GOIKOETXEA ETA HEGOI MARTIN URANGA
ATR-X sindromea duen Unaxen gurasoak

“Gure energia eta esfortzuak egunerokotasunean daude, etorkizuneko proiekzioek beldurra, mina eta antsietatea areagotzen dizkigute, besterik ez”

Lehenik eta behin, aurkeztu zuen burua eta familia.
Isle Duñabeitia: Ilse dut izena, muxikarra. Irakaslea naiz eta Unaxen eta Lumaren ama.
Hegoi Martin: Hegoi dut izena, hondarribiarra. Nutrizionista naiz eta Unaxen eta Lumaren aita.
I: Unax gure seme nagusiena da, 4 urte ditu, eta Luma gure alabak urte bete egin berri du.

Unax seme helduena gaitz batekin jaio zen. Nola du izena gaitzak eta noiz izan zenuten bere berri?
I: Unaxek 4 urte ditu eta 6 hilabete besterik ez zituela eman ziguten diagnostikoa, ATR-X sindromea izena duen gaixotasun larri bat. 5 hilabeterekin hasi zen epilepsia krisiekin eta hilabetera, mila frogaren ostean, gure bizitzako berririk gogorrena eman ziguten.

Zeintzuk dira ATR-X sindromearen ezaugarri nagusiak?
H: Gizonezkoetan ematen den gaixotasun bat da. Adimen desgaitasuna eta hipotonia muskularra dira ezaugarri nagusienak. Oso gutxik lortzen dute hitz egitea eta, gutxi gora behera, % 50ek lortzen du bere kabuz ibiltzea. Gainera, oso ohikoa da bestelako ezaugarri klinikoak izatea. Liseriketa eta elikadura arazoak, epilepsia, lo egiteko arazoak, giltzurruneko arazoak, etab. Baina ume bakoitzaren arabera oso desberdinak izan daitezke sintoma horiek guztiak.

Nolakoa izan da sindromearen bilakaera Unaxen kasuan?
I: ATR-X sindromea gaixotasun larri bat da, baina pertsona bakoitzean duen eragina oso ezberdina izan daiteke. Mutil batzuen kasuan, eragina maila guztietan ematen da (mugikortasun motorean, maila kognitiboan edo osasun arazo larrietan) eta beste batzuen larritasuna, aldiz, askoz leunagoa da. Ez dakigu Unaxek nolako bilakaera eta garapena izango duen etorkizunean, ezta zein larritasun-maila eragingo duen gaixotasunak beregan, baina esan dezakegu pozik gaudela Unaxen eboluzioarekin. Txikitxoagoa zenean osasun arazo larriagoak zituen eta bere garapenean atzerapen handia nabarmentzen hasi zen; baina orain, 4 urterekin, bere osasun-arazoak nahiko egonkortuta daude eta garapen aldetik nahiko ondo doa, ibiltzen hasi da aurten eta bere ulermen-maila ere handitzen ari da. Gure energia eta esfortzuak egunerokotasunean daude, etorkizuneko proiekzioak egiteak beldurra, mina eta antsietatea areagotzen dizkigu, besterik ez.

Gurasotasuna beti da gogorra hasieran, are gehiago gaixotasun ezezagun baten aurrean bagaude. Zein izan dira zuen euskarriak egoera honen aurrean?
H: Ba, honelako notizia bat jasotzen duzunean, zentzu guztietan, oso galdua sentitzen zara. Guri, ikaragarri lagundu digu sindrome bera sufritzen duten familiak ezagutzea. Zalantza asko argitu zizkigun, eta nolabait, lasaitasun puntu bat eman. Ohartu ginen, gaixotasunaren larritasuna kontuan izanda, bizi-kalitate onargarria lortu dezaketen haurrak daudela. Gero, denborarekin, sindromearen elkartea sortu genuen guraso batzuen artean eta oso helduleku garrantzitsua izaten ari da.

Eta nola egin zenuten beste familiekin kontaktatu eta elkartea sortzeko?
I: Unaxen diagnostikoa izan bezain azkar, 6 hilabeterekin, egoera berdinean zeuden beste familia batzuen bila hasi ginen. Gure medikuek esan ziguten Euskadin ez dagoela beste kasurik. FEDER (Federación Española de Enfermedades Raras) elkartearen bitartez Madrileko beste familia baten kontaktua lortu genuen eta beste familia gutxi batzuekin zuten whatsapp talde batean sartu ginen. Handik hilabete batzuetara elkartzeko proposamena egin genuen eta Madrilen elkartu ginen 8 familia. Segituan elkarte bat sortzeko ilusio eta proiektua sortu zen. Orain bi urte sortu genuen Unaxen gaixotasunaren elkartea (Asociación Española de Síndrome ATR-X edo AES-ATRX).

Zenbat familiek osatzen duzue elkartea?
H: Elkartea sortu genuenean 8 bat familia izango ginen eta oraintxe 16 gara.

Antzeko bizipenak dituztenekin elkartu eta partekatzea lagungarria izango da. Zeintzuk dira elkartearen helburu nagusiak?
I: Noski, dudarik gabe. Dagoeneko familia bat sentitzen gara. Elkartearen helburu nagusietako bat beste familia batzuenganaino iritsi eta babesa ematea zen. Elkarteari esker elkarrekin, beste familiei babesa emateaz gain, gure semeen ongizatea eta eskubideak bermatzeko indarrak batu ditzakegu. Beste helburu garrantzitsu bat ikerkuntza arloan sakontzea da, gure semeen bizi kalitatea hobetuko duen tratamendu edo botikarik egon daitekeen jakiteko edo bilatzeko.

Nola lagundu dezake kanpotik ekarpena egin nahi duen edonork?
H: Edonor bazkide egin daiteke, edo bestela aportazio ekonomiko puntual bat egiteko aukera dago bazkide izan gabe. Gure gizarte-sareen edo web orriaren bitartez egin dezakete. Laguntza handia da, era berean, gure sare sozialak segitzea eta jarritako informazioa elkar banatzea.

Elkarteak asko laguntzen dizue. Nolakoa da erakundeetatik jasotzen duzuen babesa?
I: Ez dugu esango dena txarra denik, justuki gure autonomi-erkidegoan beste leku batzuetan baino baliabide gehiago daudelako gu bezalako familiak laguntzeko. Baina, oraindik oso urruti gaude administrazio publikoen eskutik benetako babes erreal bat jasotzetik. Familia askori pasatzen zaigu, aldi oro administrazioarekin borrokan ibili behar dugula laguntza mota ezberdinak jasotzeko (laguntza bat ukatu izana, familiak kontuan izan gabe zerbitzuetan ematen diren aldaketak, profesional falta, eta abar). Gure bizitza edo egunerokotasuna zaila izanik, benetan nekagarria da administrazioarekin horrela ibili behar izatea.

Zer dago hobetzeko eta zer lortu nahiko zenukete epe erdi-laburrean?
H: Sergio Casas Tinto ikertzailea, ISCIII (Carlos III.a Gaixotasun Arraroen Ikerketa Institutua), gure semeen bizi-kalitatea hobetu dezaketen farmakoak testatzen hastea animalia-ereduetan. Lehen fasea arrakastaz bukatzear daude eta espero dugu, laster, bigarren fasearekin hasi ahal izatea. Hain zuzen ere, botikak probatzen hastea.

ATR-X sindromea izan ez arren, zuen esperientziatik, zer gomendatuko zeniekete gaixotasun ezezagunen aurrean aurkitzen diren familiei?
I: Dudarik gabe, antzeko egoeran dauden beste familiekin harremanetan jartzea; elkarte baten bidez edo herrian egoera berean dauden familien bidez. Gure kasuan diagnostiko bat izan dugu, izen bat jarri ahal izan diogu Unaxeri gertatzen zaionari, baina beste kasu askotan diagnostiko hori ez da iristen.

Bukatzeko, nori egingo diozue hurrengo elkarrizketa?
Nagusikleta elkarteko ordezkariei. Balazta elkarteak eta Nagusilanek sortutako proiektua da.

Galdezka

Txikikeria baliotsuak

Kasino Zaharreko sotoak arte galeria baten itxura hartzen du astearte eta ostegunetan. Dozena bat lagun elkartzen dira bertan Javier Alkain margolariaren gidaritzapean eta egunerokotasunari iskin eginez, margoketara bideratzen dituzte burua eta arima. Ordu eta erdiz ez daukate beste buruhausterik; pintzela eta motibo ezberdinekin koloreztatzen doazen orri zuria. Irakasleak azaldu digunez, aurtengoa hirugarren ikasturtea da erretiratuentzat jarduera hasi zela. “Taldeko jarduera hauek oso aproposak dira, adin hauetan bakardadea saihesteko dinamika guztiak dira positiboak”. “Txikikeria hauek -jarraitzen du-, ezgauza direla ematen dutenak, oso baliotsuak dira, animaliengatik bereizten gaituzte. Gizakiok, gaitasuna daukagu halakoekin disfrutatzeko; animaliek, berriz, ez”.

IKASLEEN IRITZIAK EZAGUTZEKO, GALDERA BATERIA BAT PRESTATU DUGU:

1. **NOIZ ETA ZERGATIK HASI ZARA PINTURA-ESKOLAK JASOTZEN?**
2. **AURREZ, INOIZ IZAN AL DUZU MARGOTZEKO AFIZIORIK?**
3. **ZER DA GEHIEN ESTIMATZEN DUZUNA? ZERK ERAKARTZEN ZAITU GEHIEN?**
4. **ZER ESPERO DUZU PINTURA-ESKOLA HAUETATIK JASOTZEA? ZEIN DA ZURE ERRONKA PERTSONALA?**

MARIA ANGELES AGIRRESAROBE HUEGUN

1. *Hasi berria dugun ikasturtea nire hirugarrena da. Pintura-eskolak ematen hasi behar zutela entzun bezain pronto animatu nintzen, betidanik izan dut gustuko margotzea. Oso kontent nago gainera, margotzen nagoen bitartean ez dut beste ezertan pentsatzen eta osasuntsua dela iruditzen zait.*

2. *Txikitan asko marrazten nuen, batez ere eskolan. Izugarri gustatzen zitzaidan. Hori bai, nik ez nuen pintatzen, marrazkiak egiten nituen.*

3. *Pintatzea da gehien gustatzen zaidana, eta, gure arteko giroa bikaina denez, ba, giro paregabean pintatzeko aukera izatea da gehien estimatzen dudana. Dozena bat lagunek osatzen dugu taldea eta batzuk ezagutzen banituen ere, lagunak ere egin ditut.*

4. *Nire erronka nagusia denbora pasatzea da, denbora gustura pasatzea. Afizio handia hartu dut eta etxean nagoenean ere, denbora asko eskaintzen diot. Margotzeak lasaitasuna ematen dit, buruhausteak desagertu egiten zaizkit.*

MAITE MATALLANA COBOS

1. *Hiru urtetan parte hartu dut tailerrean. Ez naiz oso ona marrazten eta hobetzeko helburuarekin hasi nintzen etortzen. Gauza berriak ikasi nahi nituen: koloreak nahasten, teknika berriak, eta abar. Eskulanak beti izan ditut gogoko eta oso gustura nabil.*

2. *Donostian eta Hondarribian eskulan tailerretan aritu naiz, baina margoarekin hauxe da nire lehenengo esperientzia.*

3. *Denetatik apur bat: lehendabizi, gustuko dudalako, baina gure arteko giroa horren ona izanik, oso ondo pasatzen dut, elkartzen garenean asko gozatzen dut. Hori gutxi ez eta denborarekin geroz eta hobeto margotzen dudala ikusten dut; sentsazio horrek asebetetzen nau.*

4. *Erronka… ba orain arte lortzeko gai izan ez naizena egitea, hau da, buruan daukadan ideia paperean ikustea. Abstraktura jotzeko ohitura daukat, eta, gustatuko litzaidake margotzen dudan hori zer den ikusteko gaitasuna lortzea.*

MIREN GERRIKO SANCHEZ

1. *Ikastaroaren berri izan nuenean ez nuen izena emateko zalantzarik izan. Aurtengoa nire bigarren ikasturtea da, hasieran besoa hautsita neukan eta ezin izan nuen parte hartu.*

2. *Haurra nintzenean, eskolan asko margotzen nuen, baita etxean ere. Asko gustatzen zitzaidan. Koaderno bat hartu eta hor aritzen nintzen zirriborratzen.*

3. *Giroa nabarmenduko nuke, eta Javierrek (irakasleak) gurekin daukan pazientzia. Era berean, prozesuan ikasten gabiltzala, esate baterako, nik lehen ez nituen koloreak orain bezain ongi nahasten. Gogoan dut, hasieran hartan egiten nituen lanek ume txikiek egindakoak ziruditela. Orain beste itxura bat daukate.*

4. *Erronka berezirik ez daukat. Batez ere, ondo pasatzea, eta, hemen ikasitakoa etxean praktikan jartzea. Bilobekin afizioa partekatzen dut eta hori ere izugarri polita da. Etxea apaintzeko ere baliagarria da, jarri izan baititut nire lanak etxeko paretetan.*

PACO GÓMEZ CAO

1. *Pintura gogoko dudalako hasi nintzen, batez ere akuarela. Helburu nagusia margotzen ikastea da, eta dakidan gutxia hobetzea.*

2. *Gustuko dudala esan arren, orain arte ez dut pintzelik hartu.*

3. *Oso gustura egoten naizela. Ordu eta erdia ziztu bizian pasatzen zait, ohartu gabe etxera joateko ordua heltzen da, disfrutatzen nabilen seinale izaten da hori. Nire margoak, ziurrenik, ez dira onak izatera iritsiko, baina orduak pasa ditzaket margotzen. Lastima da etxean ez dudala margotzeko ohitura hartu; leku aproposik ez daukat eta Javierren laguntzarik gabe, ba, horixe, etxean ez dut margotzen.*

4. *Ez daukat erronkarik. Pentsatzen dut denborarekin hobetzen joango naizela, baina, oso maila apalean. Niretzako margoketa denbora-pasa bat da, giro atseginean denbora pasatzeko modua.*

ZER IRAKURRI, ZER ENTZUN, ZER IKUSI

AZAROA / 2026

BERTSO-AFARIA

AZAROAK 21, 20:00
ITSASLUR ELKARTEA

Maddalen Arzallus Antia hendaiarra eta Andoni Egaña Makazaga zarauztarra kantuan ariko dira eta Amaia Agirre Arrastoak, berriz, gai-jartzaile lanak egingo ditu. Txartelak aurrez erosi behar dira Kofradiak San Pedro kalean duen dendan edo 685 762 722 telefono zenbakiarekin harremanetan jarriz. Lagun-arteko bertso saiora joateko sarreren prezioa 30 €koa da.

LIBURUAK

IZAN GIZONA

ARITZ GALARRAGA LOPETEGI

Jaiotzetik bertatik hasten da gizon izateko ikasketa, oharkabean eta uste duguna baino askatasun gutxiagorekin. Familia, eskola, lagunartea, maitasuna, sozializazioa edo gerra bezalako espazioek gizarteak espero duen gizon eredua taxutzen dute, eta eredu horretatik aldentzea ez da beti erraza. Egileak bere bizipenak abiapuntu hartzen ditu maskulinitate hegemonikoaren eraikuntza aztertzeko.

ZURTZ

YOLANDA ARRIETA MALAXETXEBARRIA

Katik jakin-min handia dauka, baina ez du eskola maite. Zurtz sentitzen da eta dozena erdi urte falta du adinez nagusi izateko. Garik 80 urte dauzka, eta pirata dirudi bere belarritako eta mototsarekin; artista askea dela esaten du. Katiren aitak gela bat jarri dio ganbaran, soilik argazkitik ezagutu duen aitaren iguala delako: haren anaia bikia... Euskadi Literatura Saria irabazi berri du Euskarazko Haur eta Gazte kategorian.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

FAMILIA-ANTZERKIA
HODEI GUZTIEN GAINETIK, MARKELIÑE
AZAROAK 7, 18:00
ITSAS ETXEA AUDITORIUMA

ESTREINALDIA
GO!AZEN 13
AZAROAK 15, 12:00
ITSAS ETXEA AUDITORIUMA

DANTZA

AURRESKU TXAPELKETA
AZAROAK 22, 12:00. ITSAS ETXEA AUDITORIUMA

Gipuzkoako Euskal Dantzarien Biltzarrak antolatuta, Itsas Etxea Auditoriumak Euskal Herriko VIII Aurresku Txapelketa Nagusia hartuko du. Seigarren urtea da Hondarribiak finala hartzen duela eta dantzariek hiru dantza egin beharko dituzte: lehenengo fasean, soinu zaharra (Bretonio handia, Ehun daukat edo Graziana, hiruretako bat) eta aurkez aurke edo desafioa. Puntuazio altuena lortzen duten sei dantzariek, bigarren txandan Zortzikoa dantzatu beharko dute. Txapelketa ikusteko beharrezkoa da gonbidapenak eskuratzea Arma Plazako informazio gunean.

"Gure nekazariak oso zaharrak direla ohartu naiz, belaunaldi aldaketarik ez dela eman"

ANE GÓMEZ LANDA

Ane Gómez Landa (Hondarribia, 1998) herrira itzuli da hainbat urtetan atzerrian bizi ondoren. Etorri berritan Hondarribia Hiria Sormen Beka irabazi zuen Baratzak Bizirik proiektuarekin eta Kostako tunelean horma-irudia margotu zuen udan. Urrian erakusketa jarri du Maddalen Arte Gunean prozesua ezagutarazteko.

Lehenengo galdera saihetsezina da. Nola sortzen da *Baratzak Bizirik* proiektua?
Kolonbia edo Madril bezalako hiri handietan urte dezente pasa ondoren, inguruan ditugun itsasoa, mendiak, natura… izugarri estimatzen ditut. Orain Amute auzoan bizi naiz eta entzuna daukat etorkizunean etxebizitzak eraikitzeko proiektu bat badela Kosta aldeko baratzetan. Kostako tuneletik pasatzen nintzenean, ingurunea utzita ikusten nuen eta Udalak beka atera zuenean tunela txukundu eta ingurunea hobetzeko aukera zegoela pentsatu nuen bertatik pasatzen diren herritarren eta nekazarien mesederako.

Hondarribiko paisaiaren parte dira baratzeak, baina askotan oharkabean pasatzen zaizkigu. Proiektua garatu ondoren, aldatu zaizu baratzeei begiratzeko modua?
Aldatu da, bai. Gazteagoa zarenean, baratzeak baino ez dituzu ikusten, ez zara baratze horien atzean dagoen lana ikusteko gai. Beste heldutasun-maila batekin bizitza osasuntsuari eta elikadura-katearen prozesuari balore handiagoa ematen diezu… Gure laborantza ikusteko modua aldatu dudala esango nuke, lurra maitatzen ikasi dut. Zentzu horretan, zortekoak gara hemen bizi izanaz, gure lurrak ugariak eta emankorrak baitira.

Murala sortu aurretik, baratzeak lantzen dituzten pertsonekin egon eta haien istorioak ezagutzeko aukera izan duzu. Zer aurkitu duzu elkarrizketa eta topaketa horietan?
Gure nekazariak oso zaharrak direla ohartu naiz, eta kasu askotan ez dela belaunaldi-aldaketa bat eman; ezagutu dudan gazteenak 64 urte dauzka. Egiten duten lanaren garrantzia erakutsi didate, baratzekiko daukaten maitasuna, nekazari-lanaren balorea, disziplina… Lantzen duten lur hori, nolabait, arbasoen herentzia bat da eta oinordekotzarekin jarraitu nahi duten arren, eten bat dago.

Kalean aritu zara lanean. Nola baldintzatu du sorkuntza prozesuan?
Kalean aritzeak baditu bere zailtasunak; hasteko, eguraldiak asko baldintzatzen du. Edo eltxoek, oso deserosoa izan zen horrenbesterekin lanean aritzea. Bestalde, herritarren feedbacka jasotzea errazagoa da, zuzenagoa; normalean, gainera, kritika konstruktiboak egiten dizkizute, ideia berriak eman. Kontuan izan, artistok, normalean, estudioko lana egiten dugula, bakarka. Ildo horretatik, kalea guztiz ezberdina da.

Ideia horietakoren bat islatu zenuen muralean?
Egia aitortzeko, ez, baina beste proiektu batzuetarako gorde ditut; kaleko-mural gehiago margotzeko eskaera egina daukat udaletxean. Diseinua itxita eraman genuen eta halako mural handietan, hain elementu handiekin, konplikatua izaten da azken orduko aldaketak txertatzea.

Maddalen Arte Gunean obraren atzean dagoen prozesua erakutsi duzu. Zergatik iruditu zaizu garrantzitsua publikoari sormen-prozesu hori ere erakustea?
Sormen prozesua erakusteaz gain, erakusketaren bidez muralaren berri eman dut. Murala eta erakusketa osagarriak dira. Bideo batean prozesua erakusten dut eta bitartean, nekazari batek gure baratzeen historia azaltzen digu.

Murala margotu ondoren, tunelak beste itxura bat hartu duenik ezin da ukatu.
Bai, baina azaldu nahiko nuke nik ez daukadala ezer tunelean zeuden grafitien aurka. Grafitiak, oro har, ez daude gaizki, baina non eta nola jarri zaindu beharra dagoela iruditzen zait. Tunelean grafiti asko zegoen, bata bestearen gainean. Espazioa utzita zegoen, itxura kaxkarra ematen zuen. Nire helburua ez zen grafitiak borratzea, tunelari aurpegia garbitzea baizik. Orain, horma-irudiak ibilbideari eta inguruneari argia ematen dio, atseginago bihurtu du.

Bukatzeko, udalari margotzeko eskatu dizkiozun beste horma-irudi horiez gain, zer daukazu eskuartean?
Azaroan Bilbon izango naiz, Paper Grabatuaren eta Artearen Nazioarteko Jaialdian. Oso emozionatua nago, nire artelanak erakutsiko ditudalako. Bestalde, aurreko hilabetean nire tailerra zabaldu nuen Irunen eta abenduan ikastaro batzuk eman nahiko nituzke; aire-librean margotzeko irteerak egin nahi ditut, horretarako ingurune pribilegiatu batean bizi garelako. Casa Yarumo izena jarri diot tailerrari; yarumoa Kolonbian dagoen zuhaitz bat da, nire gogokoena. Oso zuhaitz handia da, gainontzeko zuhaitzak hazteko babesa ematen duena. Etorkizunean, tailerra artista ezberdinen topaleku izatea nahiko nuke, eskualdeko, estatu mailako edo nazioarteko erresidentziak egiteko espazio bat, gure proiektuak partekatzeko gunea.

2
IRUN FUENTERRABIA



Hondarribiko tranbia

ARGAZKIA: UDAL LIBURUTEGIA

Ez dira asko izango Hondarribiko tranbia ezagutu eta erabili duten irakurleak. Hirurogei urtez eman zuen zerbitzua, eta Hondarribia Irunekin lotzen zuen, lau kilometro eta erdiko ibilbidean. Hain zuzen, hondartza eta Irungo tren-geltokia lotzen zituen. 1896an inauguratu zuten, hasiera batean zumardiraino iristen zen, eta, bi urteren bueltan, hondartzaraino luzatu zuten. Lehendabiziko urteetan, mandoek eta zaldiak tiratzen zuten, 1919. urtean elektrifikatu zuten arte. Azken bidaia 1953ko ekainaren 18an, edo 19an, egin zuen. Ordurako, Hondarribia, Irun eta Donostia lotzen zituen autobus zerbitzua martxan zegoen, eta, antza, errepideko garraioa azkarragoa eta malguagoa zen. Tranbia bidaiariak galtzen zituen proportzio berean defizitarioa bihurtzen joan zen eta errentagarritasun faltagatik geratu zen bertan behera zerbitzua.

Azaroa

12-17 URTE. TOPAGUNEA EGUNERO ZABALIK
ASTEARTETIK OSTEGUNERA: 17:00-20:00
OSTIRAL ETA LARUNBATETAN: 17:00-21:00

Saindua Gaztelekua
Hondarribiko Udala

ASTEARTEA	ASTEAZKENA	OSTEGUNA	OSTIRALA	LARUNBATA
3 CLUEDO MAHAI JOILASA	4 ELKARBIZI: PELUSAS MAHAI JOLASA	5 BUZTIN TAILERRA	6 ZURE TXOKOA	7 JUST DANCE ETA KARAOKE
10 CODIGO SECRETO MAHAI JOLASA	11 ELKARBIZI: KOLORE COLLAGE	12 BUZTIN TAILERRA	13 PIXU BURU LEHIAKETA	14 RECICLA BIRZIKLATUZ
17 JUNGLE SPEED MAHAI JOLASA	18 ELKARBIZI: JAPONIAR SUKALDARITZA	19 NERABEEN ESKUBIDEEN BILA!	20 ZURE TXOKOA	21 BADMINTON LEHIAKETA
24 VIRUS MAHAI JOLASA	25 ELKARBIZI: INDARKERIARIK GABEKO HARREMAN OSASUNTSUAK	26 SEXUALITATE TXOKOA	27 FUTBOLIN TXAPELKETA	28 ZURE TXOKOA

688 728 246 / 747 417 222 | saindua@hondarribia.eus | Jaizkibel hiribidea 19 | sainduagaztelekua | Saindua

enean
arkitektura
estudioa

www.enean.eus
943 53 08 41
arkitektura@enean.eus
Gabarrari 14, SM Hondarribia

LEKUONA ASESORES
1980tik AHOLKULARI PROFESIONALAK
Kontabilitate arloa | Fiskal arloa | Lan arloa | Merkataritza arloa
943 579 941
Hendaia, 9 - Bj. · 20301 Irun (Gipuzkoa)
info@lekuona-asesores.com
www.lekuona-asesores.com

MAIZA OIN KLINIKA
Oinaren gaixotasunetan espezializatutako klinika
PODOLOGIA · FISIOTERAPIA · OIN KIRURGIA
Hitzordua: 943506041 / 688 87 81 77
www.maizaklinika.com

SUDOKUAK

			4	7			9	
4	9	7			5		1	
1	5		9			4		
3				9				4
8			1		7		3	5
				4	3	1		8
		4	3		9	2		7
7	3		2				5	9
	2			5			4	

3		2		7				
	7		9			6		
		4		6	3	7		
	9		2	8				7
								2
2						4	6	
7			4		8			6
				3	6			4
4		6					7	

AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK!!

jarri hemen zure iragarkia!

Zure iragarkia "Hondarribia" aldizkarian jarri nahi baduzu, **943 218 899** telefonora deitu edo posta elektronikoz ***alazne@kulturatelier.eus*** helbidera idatzi.

EGURALDIA

FENOMENOAK

10	2	0	0	2
EURI EGUNAK	EKAITZ EGUNAK	IHINTZ EGUNAK	BEHELAINO EGUNAK	HAIZE INDARREKO EGUNAK (GEHIENEZKO HAIZE BOLADA >= 50km/o)

TENPERATURA

32.9	12.4	21.3
ALTUENA 2026 / 09 / 06	BAXUENA 2026 / 09 / 19	BATEZ BESTEKOA

PREZIPITAZIOAK

37.4	19.6	10
HILEKO EURIA (mm)	PREZIPITAZIO ALTUENA 2026 / 09 / 08	EURIA EGIN DUEN HILEKO EGUN KOPURUA

EGUZKI ORDUAK

201.7	54	6.7
GUZTIRA	BATEZ BESTEKOA HILABETEAN	EGUNEKO BATEZ BESTEKOA

PRESIOA

1029.3	1011	1020.7
ALTUENA (Hpa) 2026 / 09 / 20	BAXUENA (Hpa) 2025 / 09 / 29	BATEZ BESTEKOA (Hpa)

ARRANTZALE KOFRADIA

MOJA	**3.186 kg.**
HEGALUZEA	**226.725 kg.**
ALGAK	**32.582 kg.**

LIBURUTEGIA

BAZKIDE BERRIAK	LIBURU BERRIAK	MAILEGUAK	GEHIEN MAILEGATUTAKO LIBURUAK	
			HAURRAK	HELDUAK
7 GIZONEZKOAK	**13** EUSKARAZ	**531** EUSKARAZ	**"Musikazaleak"** MIREN AGUR MEABE PLAZA — EUSKARAZ	**"Garondoan"** GORKA BEREZIARTUA MITXELENA — EUSKARAZ
10 EMAKUMEZKOAK	**47** GAZTELANIAZ	**1.440** GAZTELANIAZ	**"One piece"** EIICHIRO ODA — GAZTELANIAZ	**"Las rutas del silencio"** HELENA RESANO LIZALDRE — GAZTELANIAZ
5 HAURRAK **12** HELDUAK	**12** GAINONTZEKOAK	**10** GAINONTZEKOAK		

ENPLEGU DATUAK

LANGABETUEN HILEROKO EBOLUZIOA

HONDARRIBIA	BIDASOA BEHEA	GIPUZKOA	EAE
501	3.715	29.156	109.237
%5,92	9,66	% 7,94	% 9,73

LANGABETUEN HILEROKO EBOLUZIOA HONDARRIBIAN, ADINAREN ARABERA

< 25 URTE		25-45 URTE		> 45 URTE	
25	15	71	106	98	186

TELEFONO ERABILGARRIAK

AIREPORTUA	943 66 85 00
ARMA PLAZA FUNDAZIOA	943 64 36 77
ARRANTZALEEN KOFRADIA	943 64 11 34
ARTXIBOA	943 11 12 87
BAZ 010	943 11 12 11
BIDASOA ESKUALDEKO OSPITALEA	943 00 77 00
DIRU–BILKETA	943 11 12 55
D.Y.A.	943 46 46 22
DONOSTIA-HONDARRIBIA AUTOBUSAK	943 64 13 02
EPAITEGIA	943 11 12 71
ERTZAINTZA	943 53 88 60
EUSKALTEGIA	943 64 12 16
EUSKARA	943 11 12 47
GAZTEEN ZERBITZUA	943 64 47 52
GIZARTE ZERBITZUAK	943 11 12 91
GURUTZE GORRIA	943 22 22 22
HIRIGINTZA	943 11 12 61
HONDARTZA KIROLDEGIA	943 64 71 37
IDAZKARITZA	943 11 12 21
IRUNGO TREN GELTOKIA	902 32 03 20
IRUN–HONDARRIBIA AUTOBUSAK	943 64 13 02
ITSAS ETXEA ANBULATEGIA	943 00 76 40
KASINO ZAHARRA	943 64 47 04
KULTURA	943 11 12 83
KZGUNEA	943 02 36 52
LIBURUTEGIA	943 11 12 85
LORAITZ HAURRESKOLA	943 64 25 48
OGASUNA	943 11 12 51
PARROKIA	943 64 26 65
PREBENTZIO KOMUNITARIOA	943 11 40 00
RADIO TAXI	943 63 33 03
SAINDUA GAZTELEKUA	943 64 31 98
SOS DEIAK	112
SUHILTZAILEAK	112
TAXI GELTOKIA	943 64 12 56
TURISMO BULEGOA	943 64 54 58
TXINGUDIKO ZERBITZUAK	943 63 96 63
UDALETXEA	943 11 12 13
UDALTZAINGOA	092

2	8	3	4	7	1	5	9	6
4	9	7	6	3	5	8	1	2
1	5	6	9	2	8	4	7	3
3	1	5	8	9	2	7	6	4
8	4	2	1	6	7	9	3	5
6	7	9	5	4	3	1	2	8
5	6	4	3	1	9	2	8	7
7	3	1	2	8	4	6	5	9
9	2	8	7	5	6	3	4	1

3	6	2	1	7	5	9	4	8
8	7	5	9	4	2	6	3	1
9	1	4	8	6	3	7	2	5
6	9	3	2	8	4	5	1	7
5	4	7	6	1	9	3	8	2
2	8	1	3	5	7	4	6	9
7	3	9	4	2	8	1	5	6
1	5	8	7	3	6	2	9	4
4	2	6	5	9	1	8	7	3

Emakumeon kontrako indarkeria desagerrarazteko nazioarteko eguna

Azaroak 25

INFORMAZIO GEHIAGO

Hondarribiko Udala